

Otogoien

14,4 km | ZIRKULARRA ERRASA | 902m | Walking 3h. 15' | Running 2h. 15' | www.walkingandrunning.es

OTOGOIEN-OLAZAR (883m) > GANALTO (898m) > GOROEN HAITZULOA



Ganalto






Ibilbidea oso ezaguna da gasteiztarren artean, hiriburutik hurbil baitago (13 kilometroko distantziara gutxi gorabehera). Badaiko mendikatean gaude, Arabako hiriburutik mendebaldera dagoen kare-meseta zabal batean, basoa gehienbat artez eta bakandutako aritez osatuta dagoen inguruan, ipuruz eta gurbitzez osatutako oihanpe batekin, klima kontinentalagoko edo mediterraneoagoko beste espezie batzuen artean.

Otogoienen (540m) hasten da ibilbidea, Gasteizko Ipar-ekialdeko Landagunean integratutako kontzejuetako batean, XIII. mendeko Natibitatearen eliza erromanikotik (📍 1).

Herriaren goiko aldera iritsiz gero nekazaritza-erabilerako pasabide bateraino iritsiko gara, berde koloreko metalezko hesi batera (📍 2), eta bertan hasten da berez bidea.

Igoera leun batean, cairn harri multzoen norabideari jarraituko diogu eta eskuineko bidea hartuko dugu aurrez aurre izango dugun lehenengo desbiderapenean (📍 3). Igoera leuna da, betiere harritumuluek markatutakoa Okako pasabidean barrena, Oka ibaiaren ur-xirripa aurkitzen dugun arte (📍 4), Landaderrako lautadetatik behera datorrena.

Gorbeia mendigunearen eta Zuiako hananaren gaineko bista paregabeekin (📍 5) ekingo diogu igoyerari, ekialderantz, Olazarko bi gailurren norabidean (883m), biak mendixka txiki batek banantzen dituelarik; alde batetik mendebaldeko gailurra (📍 6) bere buzoiarekin, eta ekialdeko tontorra (📍 7), erpin geodesiko batekin markatua eta Gasteizen gaineko bistekin.






Walking & Running VITORIA-GASTEIZ

Bidean atzera eginez Landaderrako mendixkara iritsi arte, igoera bortitz baina motzari ekingo diogu Ganaltoko norabidean.

Altuera hartutakoan bide lauan barrena joango gara mendi-ebakitik urrundu gabe Ganaltoko gailurreko (898m) gurutzea ikusten dugun arte (8). Gailur horretatik (9) Zuiako harana eta Aperregiko eta Lukianoko herriak ikusi ahalko ditugu, baita Atxabal mendia ere bere paretetan dagoen Santutegiarekin, eta mendebaldean Kuartangoko harana inguratzen duten gailurrak eta, haratago, Gorobel mendilerroa.

Puntu horretatik Santa Maria basilizarainoko jaitsiera (10) arina eta erraza da, nahiz eta zertxobait harritsu izan lasterketarako. Baselizatik ezkerreko bidea hartuta, eta jaisten kilometro batzuk egin ondoren, eskuinetara dagoen desbiderapen bateraino iritsiko gara (11), harriekin seinaleztatutakoa, Goroen Haitzulorako sarbidea emango diguna (12). Haitzuloak dituen bost sarbideek interes espeleologiko handikoa bihurtu dute haitzuloa bera, eta Arabako leize ezagunenetakoa dugu. Ia bi kilometroko ibilbidea du barrunbeak, baina 250 metro besterik ezin daitezke egin espeleologiako ekiporik gabe.

Bideari berriro heltzen diogunean, bi kilometro eskasean iritsiko gara Otoienera.



interesguneak

- Goroen Haitzuloa.
- Santa Katalinako lorategia.
- Trespondeko zubi erromatarra.
- Martiodako basa-faunaren suspertegia.

más info

www.walkingandrunning.es
www.turismo.euskadi.eus

Santa Katalinako lorategia



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basqueexperience